



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko martxoaren 15a

45. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Mentaleko eta Suizidioaren Prebentzioko Plan bat presta dezan. Osoko Bilkuran izapidetzea (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitzari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (3. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Mentaleko eta Suizidioaren Prebentzioko Plan bat presta dezan.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak mozio bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen Osasun Mentaleko eta Suizidioaren Prebentzioko Plan bat presta zezan, eta Osoko Bilkuran eztabaidatzea eskatu zuen. Mozioa 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Geroago, Parlamentuko Mahaiak, 2017ko martxoaren 6an harturiko erabakiaren bidez, mozio hori Osasun Batzordean eztabaidatzea erabaki zuen. Aipatu erabakia 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hala ere, aipatu mozioa martxoaren 16ko Osoko Bilkuran eztabaidatzea eskatu da. Hori dela

eta, beharrezkoa da haren izapidetzea berriro aldatzea, Osoko Bilkuran eztabaidatu ahal izateko.

Aipatu arrazoiengatik eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Xedatzea Legebiltzarraren Osoko Bilkuran izapidetu dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun Mentaleko eta Suizidioaren Prebentzioko Plan bat presta dezan. Mozioa 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitzari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsaolaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitzari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitzari buruzko fiskalizazio - txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (4. or.).
 - II.** Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitza (5. or.).
 - III.** Helburuak, norainokoa eta mugak (9. or.).
 - IV.** Ondorioak eta gomendioak (10. or.).
 - IV.1. Egoitzaren gastuen eta diru-sarreraren zenbatespena (2012-2015) (10. or.).
 - IV.2. Jardueraren erregistro-prozeduren azterketa (10. or.).
 - IV.3. Iritzia (11. or.).
 - IV.4. Beste oharpen batzuk, emandako iritzian eraginik ez dutenak (12. or.).
 - IV.5. Gomendioak (12. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (14. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (15. or.).

I. SARRERA

2015eko azaroaren 12an, parlamentu-eskaera bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldearen ekimenez, Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitzaren (aurrerantzean, egoitza) kudeaketa tekniko eta ekonomikoari buruzko fiskalizazio txostena egiteko.

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2016. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin, 2016ko azarotik 2017ko urtarrilera bitartean.

Egoitza Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari (aurrerantzean, institutua) atxikitako zentro bat da, eta ez du kontabilitate independenterik; hori dela eta, haren gastuak eta diru-sarrerak aipatutako institutuaren aurrekontuko zenbait kontu-sailetan daude erregistratuta.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, egoitzari buruzko deskribapen orokor bat egiten da; hirugarrenak lanaren helburuak, norainokoa eta mugak biltzen ditu, eta laugarrenean gure lanaren konklusioak eta gomendioak deskribatzen dira.

Egoitzako eta institutuko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.



Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsoneri jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzaizkien:

- Institutuko zuzendari kudeatzaile ohia.
- Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako Departamentuko kontseilari ohia.
- Institutuko zuzendari kudeatzaile ohia.
- Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilaria.

Institutuko zuzendari kudeatzaileak alegazioak aurkeztu ditu Kontuen Ganberak emandako epean. Alegazio horiek, zeinek ez baitute aldaketarik ekarri gure txostenean, Ganberak haiei emandako erantzunarekin batera, behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

II. PRINTZEAREN GOTORLEKUA GAZTEEN EGOITZA

Egoitza honen jatorria 1959an dago, orduan egungo eraikina ikasle-egoitza txiki gisa prestatu zen, Nafarroako bigarren hezkuntzako ikasleei ostatu emateko, Julio Ruiz de Alda Ikasle-egoitza Txikia izenarekin. 80ko hamarkadaren hasieran, zaharberritze-obrak egin ziren eta bi modulu eraiki ziren. Orduan, Larrabide Gazteen Egoitza izena hartu zuen.

1986an, Estatuak Nafarroari kulturaren, kirolaren, gizarte laguntzaren eta gizarte eta kultur sustapenaren arloko eskumenen transferentzia egin zion, eta egoitza hori prozesu horren barrenean sartu zen. Kirolaren eta Gazteriaren Zerbitzuari atxiki zitzaion, eta tradizionalki kirolari guztiz lotuta egon da.

Hasieran, beren prestakuntzarako laguntzak jasotzen zituzten maila eta errendimendu handiko kirolariei, bekarik gabeko kirolariei edo ikasleei aterpea emateko erabili zen. Haren erabilera, hasieratik, planteatu zen bai ikasturterako, bai oporraldirako. Izan ere, egoitza, Nafarroari transferitu zitzaionetik, gazteentzako aterpeen sare nazionalen sartu zen, hura eratu zen unetik, bai eta Hihostel nazioarteko sarean ere, zeuzkan tokiei ahal den probetxu handiena ateratzeko.

90eko hamarkadaren hasieran, toki guztiak beteta zeuden; hori dela eta, 1996an beste eraikin bat egitea planteatu zen. Obrak amaituta, egoitzari Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitza izena eman zitzaion. Zerbitzuak eskari hain handia zuenez, Institutuak urtean bi deialdi egiten zituen, eta haietan zehazten ziren egoiliarrek bete beharreko baldintzak eta haiek sailkatzeko eta egoitzara sartu ahal izateko erabiltzen ziren balorazioak.

Hala eta guztiz ere, denborarekin, zenbait inguruabar tarteko, gaur egun ez dira toki guztiak betetzen. Zehazki, kirolarientzako beken kopuruak behera egin du, aipatutako laguntzak emateko irizpideak aldatu dira eta ikasleen eskari gutxitu da, zeren eta beste aukera batzuen alde egiten baitute. Izan ere, azken ikasturtean, 2016-2017koan, eskariak behera etortze horren aurrean, institutuak ez zuen deialdia egin, zeren eta beharrezkoa ez zela jo baitzuen.

Gaur egun, egoitzak 98 toki dauzka, eta haien erabilera aldatzen joan da denborarekin, beka kopurua, haren baldintzak, ohiko ikasleen eskaria eta abar aldatzearen ondorioz. Txosten hau idazteko garaian, eskaria zehazki honela zegoen banatuta: Egoiliar-ikasleentzako 60 toki, egoiliar-kirolarientzako 25 toki eta aterpekideentzako 13 toki.

Honako hau da 98 toki horien eraikinetan duten banaketa:

	Gela bikoitzeko tokiak		Banakako gelako tokiak		Tokiak guztira
	Komuna gelan	Komun amankomunak	Komuna gelan	Komun amankomunak	
Eraikin berria	41 ⁽¹⁾	-	-	-	41
Eraikin zaharreko 1. solairua	8 ⁽²⁾	-	1	-	9
Eraikin zaharreko 2. solairua	-	20	2	2	24
Eraikin zaharreko 3. solairua	-	20	2	2	24
Deitutako lanpostuak	49	40	5	4	98

(1) Geletako bat gela hirukoitz moduan erabil daiteke.

(2) Aterpekideentzako edo taldeentzako apartamentuak dira.

Toki horien okupazioak honako bilakaera hau izan du azken ikasturteetan:

Ikasturtea	Betetako tokiak			Okupazioa, ehunekotan Ikasleen
	tokiak	Kirolariak	Guztira	
2011-12	41	30	71	72
2012-13	32	24	56	57
2013-14	29	17	46	47
2014-15	24	17	41	42
2015-16	37	10	47	48
2016-17	44	12	56	57

Tokien okupazioaren ehunekoak jaisten joan da, baina 2015etik aurrera nolabaiteko igoera gertatu da. Ikusten da, gainera, kirolarien okupazioak guztizkoan duen garrantzia behera egiten joan dela denborarekin. Tokien okupazio jarraituaren datu horiek balioesteko, kontuan hartu beharra dago aterpekideentzako tokiak ez daudela jasota.

Ondoren, egoitzak duen jardueraren beste adierazle bat zehaztuko dugu: urteko gauak. Horretan aterpekideei buruzko datuak sartzen dira. Honako hauek dira azken bost urteei buruzko datuak:

	2012	2013	2014	2015	2016	2016/2012 aldea (%)	Aldea (%) 2016/2015
Gauak, guztira	22.823	15.226	16.257	16.545	19.206	-16	16

Kasu honetan, gau-kopuruak ehuneko 16 egin du behera aztertutako aldian, nahiz eta, aurreko kasuan bezala, azken urteetan igoera txiki bat gertatu den. Igoera hori 2016. urtean finkatu da; izan ere, urte horretan, gau-kopurua 2015ekoa baino ehuneko 16 handiagoa izan da. Nabarmendu beharreko beste gai bat da ezen gau-kopuruaren guztizkotik ehuneko 74 inguru egoiliarrei dagozkiela eta gainerako ehuneko 26a, berriz, aterpekideei.

Egoitzako tokien urteko guztizko baliagarritasuna kontuan hartu eta gau-kopuruarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu zentroaren urteko okupazioa ehuneko 49koa dela 2015ean eta ehuneko 55ekoa, berriz, 2016an; hau da, urtean gutxi gorabehera baliagarri dauden baliabideen erdia erabiltzen da. Horri dagokionez, esan beharra dago ezen, gaur egun, institutuak gogoeta-prozesu bat hasia duela egoitzaren kudeaketa integralari buruz, haren etorkizuna aztertzeko, horrek dakartzan beharrezanekin. Lortutako ondorioekin, egoitza biziberritzeko plan bat egingen da. Horri gehitu behar zaio 2008an egoitza eraberritzeko proiektu bat egin zela, 1,8 milioi eurokoa, zeina gerarazita baitago aurrekontuan krediturik ez dagoelako.

2015-2016ko egoiliarrei buruzko datu aipagarrienak, zeinak ez baitira asko aldatzen aurreko ikasturteetan izan direnekin alderatuta, honako hauek dira: ehuneko 70 gizonezkoak dira; ehuneko 67 nafarrak dira (gainerakoak, beste autonomia erkidego batzuetakoak); ehuneko 40k unibertsitate-ikasketak egiten dituzte eta ehuneko 30k batxilergoak.

Institutuaren gobernu-kontseiluak erabakitako prezioak eta tarifak honako hauek izan dira 2015-2016 ikasturterako:

Banakako aterpekidea			
	Ostatua: komunik gabeko gela	Ostatua eta gosaria	Ostatua, gosaria, bazkaria eta afaria
30 urtetik beherakoak	15 € pertsonako eta eguneko	17,60 € pertsonako eta eguneko	28 € pertsonako eta eguneko
30 urtetik beherakoak - Gazte txartela	13,5 € pertsonako eta eguneko	15,80 € pertsonako eta eguneko	25 € pertsonako eta eguneko
30 urte edo gehiago	16 € pertsonako eta eguneko	18,60 € pertsonako eta eguneko	29 € pertsonako eta eguneko

Aterpekideen taldea edo familia		
Taldeak (10 pertsona, gutxienez)	Ostatua eta gosaria. Komunik gabeko gela	Ostatua, gosaria, bazkaria eta afaria. Komunik gabeko gela
	16 € pertsonako eta eguneko	27 € pertsonako eta eguneko

Egoiliar ikasleak*		
	Ikasturterako ostaturia. 8 hileko ordainketa, urritik hurrengo urteko maiatzera.	Egoiliar-ikasleentzako ostaturia, ekainetik irailera, astez astekoa.
Gela bikoitza komunarekin (eraikin berria)	298 € hilabeteko eta pertsonako	75 € asteko eta pertsonako
Gela bikoitza, komuna partekatuz (eraikin zaharra)	198 € hilabeteko eta pertsonako	50 € asteko eta pertsonako
Banakako gela komunarekin (eraikin zaharra)	298 € hilabeteko eta pertsonako	75 € asteko eta pertsonako
Banakako gela, komuna partekatuz (eraikin zaharra)	250 € hilabeteko eta pertsonako	62,50 € asteko eta pertsonako

*Egoiliar kirolariek ostaturia-kuotatik salbuetsita daude.

Kopuru horiek 2014ko berak dira, eta 2016-2017 ikasturterako indarrean jarraitzen dute txosten hau idazteko garaian.

Honako hauek dira egoitzaren azpiegiturak:

- 24 gela bikoitz komuna dutenak (horietako bat hirukoitz moduan erabil daiteke).
- Banakako bost gela komuna dutenak.
- 20 gela bikoitz, komun partekatuekin.
- Banakako lau gela, komun partekatuekin.
- Self-service erako jantokia, 80 tokirekin.
- Jantoki berezia, 20 tokirekin.
- Bi egongela, telebistarekin.
- Ikasteko bi areto.
- Bileretarako bi areto, ikus-entzunezko baliabideekin, 40 pertsonentzat.
- Bi bilera-areto, 20 tokirekin.
- Ekitaldietarako areto bat, ikus-entzunezko baliabideekin, 110 eserlekurekin eta zutik egoteko beste 60 lekurekin.
- Fitxekin funtzionatzen duen garbigailu- eta lehorgailu-zerbitzua.
- Larrabide estadioaren instalazioetarako sarbidea, taldeentzat eta kontzentrazioentzat, aurrez eskatuta.

Gaur egun, honako hauek erabiltzen dituzte aretoak: kirol federazioak, institutua atxikia dagoen departamentua eta beste entitate batzuk. Zehazki, 2015ean, aretoak 696 orduz erabili ziren, eta ekitaldi aretoa, berriz, 38 egunetan erreserbatu zen guztira; kontuan hartu beharra dago bai departamentuak, bai federazioek ez dutela areto horien erabilera ordaintzen, salbuetsita baitaude, institutu beraren gobernu-kontseiluaren erabakiz.

Zortzi langilek egiten dute lan egoitzan, honako zeregin hauetan:

Lanpostua	Maila eta araubide administratiboa
Bulegoburua Gazteentzako zentroak (egoitzako arduraduna)	B mailako funtzionarioa (beste zentro batzuekin batera)
Zerbitzu anitzetarako arduraduna	D mailako funtzionarioa (beste zentro batzuekin batera)
Mantentze-lanetako ofiziala	C mailako funtzionarioa
Mandataria	E mailako funtzionarioa
Askotariko zerbitzuetako langilea	E mailako funtzionarioa
Askotariko zerbitzuetako langilea	E mailako funtzionarioa
Askotariko zerbitzuetako langilea	E mailako funtzionarioa
Askotariko zerbitzuetako langilea	E mailako funtzionarioa
Atezaina	E mailako kontratupeko langilea, sindikatu-liberatua den funtzionario baten ordezkoa.

Langile horiezaz gainera, elikadura- eta garbiketa-zerbitzuak kanpoan kontratatuta daude:

- Elikadura zerbitzua: egoitza sortu zenean, zerbitzu hori baliabide berekiekin ematen zen, baina 1996ko urritik kanpoan kontratatuta dago. Kontratu indarduna zerbitzu-emakidaren formula erabiliz esleitu zen 2013-2015 aldirako, eta 2020ra arte ere luza zitekeen: egoera horrexetan dago gaur egun. Zerbitzua Altsasuko Santo Cristo de Otdia aterpetxearekin batera esleitu zen.

Enpresak urteko kanon bat ordaintzen du, 6.590 eurokoa, eta horren truke erabiltzaileengandik zuzenean jasotzen ditu zerbitzatutako gosari, bazkari eta afari zerbitzuei dagozkien ordainak. Langileak subrogatzen joan dira eta baldintza-orriek kategoria profesional bakoitzak egin dezakeen ordu-kopurua ezartzen dute.

Ematen dituen zerbitzuetarako esleipen-hartzaileak ezarritako prezioak baldintza-orrietan jasotako gehienekoak dira; honako hauek, hain zuzen:

	Gosaria	Bazkaria	Afaria	Pentsio osoa
Eguneko zenbatekoa	2,61	8,25	7,18	18,04

2013ko azaroan, esleipen-hartzaileak eskatu zuen baldintza-orrien arabera egin beharreko laneko ordu kopurua gutxitzeko, hain zuzen ere kontratuan jasotakoak, hasiera batean aurreikusitako jarduera jaitsia baitzen. Institutuaren aldeko txostenarekin, orduak gutxitzea erabaki zen, 151etik 136,5era hain zuzen. Txosten horrek jada zehazten zuen ezen, jarduera handitzen bazen eta 72 egoiliar izatera iristen bazen, lanorduak baldintza-orrietan jasotako 151ko kopuruari egokitu zitzazkiola berriz.

- Garbiketa-zerbitzua: 2015ean esleitutako laguntza-kontratu bat dago, beste hiru urtez luza daitekeena (egoera horretan dago gaur egun). Zerbitzu horren esleipena beste zentro batzuenarekin batera egin zen (institutuko bulegoak, Gaztediaren Zuzendariorde Nagusia, Larrabide Kirol Teknikazioko Zentroa eta abar). Langileak, halaber, subrogatuta daude.

Aurreko informazio hori guztia kontuan hartuta, egoitzari 2015ean egoztekoak zaizkion gastuak 493.389 eurokoak eta 144.724 eurokoak dira hurrenez hurren.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Honako hauek dira lan honen helburuak, Parlamentuak egindako eskaria kontuan hartuta:

- 2012-2015 aldian egoitzak izandako gastuak eta diru-sarrerak kuantifikatzea.
- Jardueraren erregistro-prozedurak eta egoitzako erreserben kudeaketa aztertzea.
- 2015eko gastuen eta diru-sarreraren arrazoizkotasuna aztertzea, eta aztertzea, halaber, egoki justifikatuta eta kontabilizatuta dauden.
- Egoitzako elikadura- eta garbiketa-zerbitzuaren kontrataziorako baldintza-orrien betetzea aztertzea.

Gure lana egiteko, jarraian zehazten den informazioa aztertu dugu:

- 2012-2015 aldirako egoitzarekin lotutako kontu-sailen betetzea.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantillak, 2012-2015 aldirako.
- Zentroari aplikatzekoa zaion araudia: eliteko kirolarientzako beken deialdia, prezioak eta tarifak onesteko erabakiak, gazteentzako aterpetxetzat hartua izateko baldintza administratiboak, eta abar.
- Egoitzako elikadura- eta garbiketa-zerbitzuetarako kontratuen baldintza-orriak.
- Egoitzaren gastuak eta diru-sarrerak kudeatzeko prozedurak.
- Zentroaren jarduera-erregistroari dagozkion prozedurak eta dokumentazioa.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz. Funtsean bigarren eta laugarren mailetako ISSAI-ES arauak aplikatu dira, auditoria finantzarioko fiskalizazioei dagozkienak, eta, zehazkiago, kontu-sail zehatzen azterketari eta kontratuen exekuzioaren zati bat betetzeari dagozkionak. Lanaren helburuaren eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak erabiliko dira.

Lan honek muga bat izan du, egoitzaren gastuen zenbatespenarekin lotuta dagoena. Kontuan hartu beharra dago egoitza institutuari atxikitako zentro bat dela eta, horrenbestez, haren gastuak eta diru-sarrerak zentro horren kontu-sailetan erregistratuta daudela. Egoitzak 2012-2015 aldiko gastuak eta diru-sarrerak eman dizkigu, eta haiek kontabilitaterako SAP aplikazioaren informazioarekin alderatu ditugu. Eraitza ona izan da. Egiaztatze-prozesu horretan zehar, egiaztatutako gastuetako batzuk ez daudela egoitzaren gastu gisa identifikatuta; hori dela eta, gure analisisian jaso gabeko beste gastu batzuk egon daitezke. Halere, ez dugu uste aipagarriak izan direnik eta, horrenbestez, ez lituzkete aldatuko lortutako ondorioak.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako lanaren ondorio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, baita antzeman diren balizko hutsuneak hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

IV.1. EGOITZAREN GASTUEN ETA DIRU-SARREREN ZENBATESPENA (2012-2015)

Honako hauek dira 2012-2015 aldiko gastuei eta diru-sarrerari buruz egoitzak eman dizkigun datuak:

Kapitulua	2012	2013	2014	2015	2015/2012 aldea (%)	2015/2014 aldea (%)
Gastuak						
1 Langile-gastuak	224.740	246.763	228.827	283.738	26	24
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak	232.673	207.807	204.213	193.316	-17	-5
6 Inbertsioak	2.949	5.355	4.681	16.335	454	249
Guztira	460.362	459.925	437.721	493.389	7	13
Diru-sarrerak:						
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	125.603	151.439	145.750	144.724	15	-1
Guztira	125.603	151.439	145.750	144.724	15	-1
Diru-sarrerek gastuak zenbatean ezalduz dituzten (%)	27	33	33	29	-	-

Ikusten denez, aztertutako aldiko urteko batez besteko gastua 460.000 eurotik gorakoa da, gutxiatik; urteko batez besteko diru-sarrerak, berriz, 140.000 eurokoak dira eta horiek gastuen ehuneko 30 baizik ez dute estaltzen.

2015ean, gastuen ehuneko 58 langile-gastuak dira; ehuneko 39 ondasun arrunt eta zerbitzuei dagokie, eta gainerako ehuneko hirua, azkenik, inbertsioei.

Langileen gastuari dagokionez, kontuan hartu beharra dago ez dituztela jasotzen beste zentro batzuekin partekatutako langileak (egoitzaren erantzulea eta zerbitzu anitzetako arduraduna); bestalde, bai jasotzen ditu sindikatu-liberatu den funtzionarioa eta hura ordeztzen duen pertsona. 2014arekin alderatuta gastuetan izan den igoeraren arrazoi nagusia 2012ko aparteko ordainsariaren zati baten ordainketa da.

Halaber, nabarmendu behar dugu ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuen ehuneko 57 garbiketa-kontratuari dagozkiola eta ehuneko 27, berriz, hornidurei (energia elektrikoa, ura eta berokuntza). Gastuaren banaketa-ehuneko horiek aztertutako gainerako urteetako antzekoak dira.

Diru-sarrerari dagokienez, aldi osoan halako hazkunde bat izan da; dena den, 2015ean 2014ko berak dira ia.

2015ean, diru-sarreraren ehuneko 82 egoiliarren eta aterpekideen ostatuari dagozkio, eta gainerako ehuneko 18a, berriz, elikadura-zerbitzuaren esleipen-hartzailea den enpresatik heldutako diru-sarrerari (2015eko eta 2016ko kanonak) eta haren ur- eta energia-kontsumoei, egoitzak aurrez ordainduak baitira.

IV.2. JARDUERAREN ERREGISTRO-PROZEDUREN AZTERKETA

Egoitzak garatutako jardueraren erregistroa, egonaldiak, okupazioak, gauei, erreserbei eta abarrei dagokienez, ez dago informatizatuta, eta eskuzko prozedurak erabiltzen dira datu horiek guztiak jasotzeko.

Horrek berekin dakar informazioaren tratamenduan akatsak egiteko arriskua, baldin eta informazio hori soilik erabiltzen bada datu-bilketa estatistikoaren eraginetarako, eta ez emandako zerbitzuak fakturatzeko.

Egoitzaren webguneko datu orokorretan zenbait akats aurkitu dira, baina pentsa daiteke webgune berri bat sortzeko egungo prozesuan ebatziko direla. Bestalde, taldeka ez datozen aterpe-kideen erreserbak kudeatzen direneko webguneak baliagarri dauden tokien motari eta kopuruari buruzko zenbait datu badauzka nahasgarri gerta daitezkeenak.

IV.3. IRITZIA

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren erantzukizuna

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren estatutuen arabera, Garapen Estrategikoaren, Azpiegituren eta Baliabide Kudeaketaren Zuzendariordetza da institutuaren azpiegiturak eta atxikiak dituen zentroak kudeatzeko, jarduera ekonomiko-administratiboaren plangintza eta kudeaketa koordinatzeko eta institutuaren kontabilitatearen eta aurrekontuaren jarraipena egiteko erantzukizunak dituena.

Aipatutako zuzendariordetza —zehazkiago Gazteriaren Etxeen Bulegoa— da egoitzaren laguntza-kontratazioen jarraipena eta kontrola egiteko erantzukizuna duena.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat ematea egoitzak 2015eko ekitaldian izan dituen gastuak eta diru-sarrerak arrazoizkoak eta egokiak izateari buruz, bai eta egoitzako elikadura- eta garbiketaz-zerbitzua arautzen duten kontratuarentako baldintza-orriak betetzeari buruz ere. Horretarako, gure lana egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoen oinarritzko fiskalizazio-printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: gastu eta diru-sarreretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta hartan akats materialik ez egotea; eta kasuko kontu-sailetan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta, kasu honetan, kontu-sailetan adierazitako informazioari buruz. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera izatea, horren barne dela kontu-sailen akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu-sailen kudeaketa eta kontrola egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia emateko.

IV.3.1. 2015eko gastuei eta diru-sarrei buruzko auditoria finantzarioko iritzia

Gure iritziz, aztertutako kontu-sailek, alderdi esanguratsu guztietan, egoitzak 2015eko abenduaren 31n zeuzkan gastuen eta diru-sarreraren likidazioa agertzen dute, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz, eta gastuak eta diru-sarrerak kudeatzeko prozedurak arrazoizkoak dira.

Beste gai garrantzitsu batzuei buruzko lerrokada

Egoitzaren diru-sarrek ez dituzte jasotzen beka duten egoiliarren ostatuari dagozkionak, ez eta federazioek aretoak erabiltzetik heldutakoak ere, ordaintzetik salbuetsita baitaude; halakoek 44.661 euroko diru-sarrera gehigarriak ekarriko zituzten.

IV.3.2. Elikadura- eta garbiketa-kontratuak baldintza-orriak betetzeari buruzko iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Elikadura-zerbitzuaren esleipenduna den enpresak eskaintako hobekuntza batzuk, kontratuaren balioespenean eta esleipenean garrantzitsuak izan zirenak, ez dira bete txosten hau idazteko datan; halere, ez dute eragin adierazgarrikerik zerbitzu-ematean.

Betetzeari buruzko iritzia

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalaren lerrokadan aipatutako egitateengatik ez bada, bai elikadura-kontratuak arautzen duten baldintza-orrien klausulak, bai garbiketa-kontratuarenak arrazoiz bete dira.

IV.4. BESTE OHARPEN BATZUK, EMANDAKO IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK

Jarraian, egindako lanetik ondorioztatutako konklusioak eta oharpenak aipatzen dira, nahiz eta emandako iritzian eraginik ez duten:

- Egoitzaren 2015erako gastuetan eta diru-sarreretan akats ez-adierazgarri batzuk aurkitu dira. Haien eragin garbiak 3.233 euro gutxiti ditzake gastuak eta 14.172 euro handitu diru-sarrerak. Gabezia horien arrazoi nagusia egoitzaren diru-sarrerak kontabilizatzeko erabilitako prozedura da. Zehazki, diru-bilketarako kontu bat erabiltzen da, Nafarroako Gobernuaren "hamabostaldien" prozedura orokorrari jarraitzen diona; hori dela eta, aldi horretako mugimendu guztiak informazioa iristen denean erregistratzen dira, baina gerta daiteke sortzapenaren irizpidea zorrotz ez betetzea. Hartara, esate baterako, 2015ean 2014ko 6.402 euro egiten duten fakturak kontabilizatu ziren, eta 2015eko abenduko diru-sarrerak, 22.794 eurokoak, erregistratu gabe utzi ziren.

- Ez dago jasota elikadura-zerbitzuaren nahiz garbiketa zerbitzuaren esleipen-hartzaileak, baldintza-orrien arabera, egin beharko lituzkeen garbiketa orokor ez-egunerokoen jarraipena egiten denik,

- Kirolari bekadunek enpresa esleipen-hartzaileari elikadura-kostuak direla-eta egin beharreko ordainketarako aurreikusitako epea hilekoa da; halere, kirolari horientzako diru-laguntzak beste maiztasun batez eman izan dira (hiruhilekoan behin, lauhilekoan behin eta abar).

- Gure lana egiten ari ginen bitartean, egoitzako arduradunek elikadura-zerbitzuari dagokion inbentarioa egin dute, eta emaitza baldintza-orrietan jasotakoaren arabera da.

IV.5. GOMENDIOAK

Egindako lanaren konklusioak aztertu ondoren eta, gainera, esparru-akordioaren babesean egindako kontratuak 2016ko abenduan iraungiko direla kontuan hartuta, honako hau gomendatzen dugu:

- *Egoitzari buruzko gogoeta-prozesua amaitzea eta hura biziberritzeko plana egitea, aztertuz komenigarria den ala ez aurreikusita dagoen eraberritze-proiektua abian jartzea, partzialki nahiz erabat, hartutako erabakiaren arabera.*

- *Nolanahi ere, egoitzaren okupazioaren eta erabileraren egungo portzentajea dela eta, haren izateari eta balizko erabilerei buruzko zabalkunde eta publizitate gehiago egin beharra dago, honako hauei begira: ohiko ikasleak, kirolariak, ostatatze partikularrak, aterpekideak, aretoen eta ekitaldi aretoaren alokairua eta abar.*

- *Aztertzea aukerarik ba ote dagoen entitatearen batekin akordio edo hitzarmenak egiteko, egoitzaren okupazioa handitze aldera. Kasua bada, aplikatu litezkeen beharpenak zehaztea.*

- *Elikadura-zerbitzuaren emakidadunari formazko errekerimendua egitea, eskaintzan zehaztutako hobekuntzak ezar ditzan.*

- *Klausula administratiboen orrietan jasotzea hobekuntzak ez betetzekotan aplikatu beharreko zigorrek, larritasunaren arabera.*

- *Kontrolatzea elikadura-zerbitzuaren eta garbiketa-zerbitzuaren esleipen-hartzaileek garbiketa orokorrak eta berariazko lanak behar baino maiztasun txikiagoz egiten duten, ezarritako hileroko plangintzari jarraituz baldintza-orrietan ezarritakoaren arabera.*
- *Egoiliarren eta aterpekideen erregistroa kudeatzeko aplikazio informatiko bat ezartzea, informazio horren tratamendua hobetze aldera.*
- *Diru-sarreraren 5. kapituluan erregistratzea elikadura-zerbitzuaren enpresa esleipen-hartzaileak ordaintzen duen kanonaren bidez jasotako zenbatekoak.*
- *Egoitzaren jarduerari buruzko urteko oroitidazki bat egitea, non zentroaren kudeaketari buruzko datu aipagarrienak jasoko diren.*
- *Webgune berrian egoitzaren datu orokorretan gaur egun dauden akatsak zuzentzea.*
- *Taldeka ez datozen aterpekideen erreserbak kudeatzen duen webgunearen datuak argitzea, nahasteak saihesteko.*
- *Garbiketa-zerbitzuaren gaur egungo prestazioen egokitasuna ebaluatzea etorkizuneko esleipenetan, dauden okupazio-ehunekoak kontuan hartuta.*
- *Beka duten kirolariei diru-laguntzak hileroko emateko aukera aztertzea, behin diruz lagundutako gastuen ordainketa-ziurtagiriak aurkeztu ondoren.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2017ko otsailaren 21ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**Kontuen Ganberak Printzearen Gotorlekua Egoitzari buruz egindako txostenerako ekarpenak**

Kontuen Ganberari eta haren teknikariei eskerrak eman nahi dizkiegu egin duten txosten exhaustiboarengatik eta etorkizunean hobetzeko egin dizkigun ekarpenengatik.

Egindako gomendioei dagokienez, honako hauek esan behar ditugu:

- *Egoitzari buruzko gogoeta-prozesua amaitzea eta hura biziberritzeko plana egitea, aztertuz komenigarria den ala ez aurreikusita dagoen eraberritze-proiektua abian jartzea, partzialki nahiz erabat, hartutako erabakiaren arabera.*

Horri buruz, esan beharra daukagu aurtengo programatuta dagoela teilatua eta fatxada berritzea, zeren eta egindako azterketan jo baita horiek direla jarduteko lehentasunezko puntuak, zeren eta diseinatu den proiektu osoari ekiteko modurik ez baitago eta gaurkoz inbertsio hori justifikatzen duen okupazio-bolumenik ere ez baitago.

- *Nolanahi ere, egoitzaren okupazioaren eta erabileraren egungo portzentajea dela eta, haren izateari eta balizko erabilerei buruzko zabalkunde eta publizitate gehiago egin beharra dago, honako hauei begira: ohiko ikasleak, kirolariak, ostatatze partikularrak, aterpekideak, aretoen eta ekitaldi aretoaren alokairua eta abar.*

- *Aztertzea aukerarik ba ote dagoen entitatearen batekin akordio edo hitzarmenak egiteko, egoitzaren okupazioa handitze aldera. Kasua bada, aplikatu litezkeen beherapenak zehaztea.*

Guztiz ados gaude egindako gomendioarekin. Prezio publiko berrien onespina prestatzen ari gara, eta okupazioa handitzeko akordio edo hitzarmenak egiteko eta aplikatu litezkeen beherapenei buruzko proposamen horiek jasoko ditugu.

- *Elikadura-zerbitzuaren emakidadunari formazko errekerimendua egitea, eskaintzan zehaztutako hobekuntzak ezar ditzan.*

- *Klausula administratiboan orrietan jasotzea hobekuntzak ez betetzekotan aplikatu beharreko zigorrak, larritasunaren arabera.*

- *Kontrolatzea elikadura-zerbitzuaren eta garbiketa-zerbitzuaren esleipen-hartzaileek garbiketa orokorrak eta berariazko lanak behar baino maiztasun txikiagoz egiten duten, ezarritako hileroko plangintzaren arabera baldintza-orrietan ezarritakoaren arabera.*

Jarraipenerako protokoloa egiten ari gara. Era berean, emakidadunei eskatuko zaie hileroko plangintza bat egiteko, non garatuko diren lanak jasoko baitira. Horren jarraipen exhaustiboa egiten da.

- *Egoiliarren eta aterpekideen erregistroa kudeatzeko aplikazio informatiko bat ezartzea, informazio horren tratamendua hobetze aldera.*

- *Webgune berrian egoitzaren datu orokorretan gaur egun dauden akatsak zuzentzea.*

- *Taldeka ez datozen aterpekideen erreserbak kudeatzen duen webgunearen datuak argitzea, nahasteak saihesteko.*

NKGIaren webgune berria abian da. Bertan datuak zuzenduko dira, eta REAJen bilaketetarako motorra erabiliko da; izan ere, horrek aukera ematen du gaur egun dauden arazoak ebazteko, une bakoitzean egoitzan okupatuta dauden gelei buruzko gaurkotzea eta jarraipena egiteko eta eskaintza une oro sarean gaurkotuta edukitzeko.

- *Diru-sarreraren 5. kapituluaren erregistratzea elikadura-zerbitzuaren enpresa esleipen-hartzaileak ordaintzen duen kanonaren bidez jasotako zenbatekoak.*

Ados gaude ohar horrekin, eta zuzendu eginen dugu hori etorkizunean egiten ditugun kontabilitate-idazpenetan.

- *Garbiketa-zerbitzuaren gaur egungo prestazioen egokitasuna ebaluatzea etorkizuneko esleipenetan, dauden okupazio-ehunekoak kontuan hartuta.*

Gaur egun, enpresa esleipen-hartzaileak zenbait zentrotan duen garbiketa-kontratu osoa aztertzen ari gara, eta kasu bakoitzean egiten diren lanak aztertzen ari gara, zentro bakoitzaren beharizanei edo instalazioari egokitzeko, hurrengo lehiaketari begira.

- *Beka duten kirolariei diru-laguntzak hilero emateko aukera aztertzea, behin diruz lagundutako gastuen ordainketa-ziurtagiriak aurkeztu ondoren.*

Kirolarientzako elikadura-beketarako egiten dugun hurrengo deialdietako beka hilero ordaindu ahal izateko metodoa bilatuko dugu.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea: Rubén Goñi Urroz

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-DAKO ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak aurkeztutako alegazioak aztertuta, ohar horiek txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen. Txostenari erantsi zaizkio eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Eskerrak eman nahi ditugu lankidetzarengatik eta egindako alegazioen edukiarengatik.

Iruñean, 2017ko otsailaren 21ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

